



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

## “AFLUENCIAS COSTA ESTE – COSTA OESTE”

Miguel Trillo

2017ko uztailaren 13tik irailaren 24ra arte  
13 de julio al 24 de septiembre de 2017

## “AFLUENCIAS, COSTA ESTE-COSTA OESTE”

“Afluencias, Costa Este-Costa Oeste” lanarekin, Miguel Trillok sakondu egiten du aurrera daraman joera estetikoaren ikerketa dokumentalean, eta beste koska bat estutzen gazteen erritual suburbanoak jasotzerakoan. Argazki erakusketaren funtsa 2010-2014 urteetan tarteka egindako koloretako azken seriea da: batetik, munduko gainerako lekuetarako erreferentzia diren Estatu Batuetako hiri garrantzitsuenetan (New York eta Los Angeles) egindakoak; bestetik oso oinarri ideologiko urruna duten bi herrialdetako —Vietnamen eta Marokon— lau hiritan egindakoak (Hanoi, Ho Chi Minh hiria-Saigon, Rabat, Casablanca), non komunismoak eta islamismoak markatzen baitute bizimodu tradizionala. XX. mendeko 50eko urteetatik aurrera, AEBetako musikari lotutako mugimendu ikonikoek markatu dute munduko hainbat lekutako gazteek, imitaziozko erreakzio batean, jarraitu beharreko bidea, aldaketa eta errebeldia olatuak harrapatu ahala. Itxuraz muturreko diren kostaldetako —Vietnamen eta Marokon— proiektzioa, erakusketan jasotakoa, beste urrats bat litza-teke haien proiektu global original eta iraunkorrean, eta guztiz indarrean dagoen hausnarketa.

Xehetasunen argazki multzo bat ere gehitu da, mosaiko handi batean bilduta, mugimendu horien elkarguneak edo bat-egiteak islatzearren.

Une oro Miguel Trillok bere lanaren ardatza osatzen duen asmo garbiari eusten dio: lurraldea, periferia eta tribu urbanoen eta gazteen joeren errealtatea lantzea, zentraltasunaren aurrean.

Javier Diez

Erakusketaren komisarioa

## “AFLUENCIAS, COSTA ESTE- COSTA OESTE”

Con “Afluencias, Costa Este- Costa Oeste”, Miguel Trillo profundiza y da otra vuelta de tuerca en su personal indagación documental en el mundo de las tendencias estéticas los rituales suburbanos juveniles. La esencia de esta muestra fotográfica es la última serie en color realizada, de manera intermitente en los años (2010-2014) en las ciudades punteras de los Estados Unidos (Nueva York y Los Angeles), referenciales para el resto del mundo y otras cuatro ciudades de dos países con una base ideológica tan distante como Vietnam y Marruecos (Hanoi, Ho Chi Minh-Saigón, Casablanca y Rabat), donde el comunismo y el islamismo marcan la vida cotidiana tradicional. Desde los años 50 del siglo XX, los movimientos icónicos vinculados a la música de los USA han marcado la senda a seguir, en una reacción imitativa, por los jóvenes de los diversos lugares del planeta según les iba alcanzando la ola de cambio y rebeldía. Así su proyección en las supuestas costas extremas de Vietnam y Marruecos, recogida en esta exposición, sería un paso más en su original y perseverante proyecto global, así como una reflexión de imperiosa actualidad.

Se suma, además, un conjunto de fotos-detalle que, compendiadas en un gran mosaico, nos hablan de los puntos de convergencia, reunión o ‘afluencia’ de estos movimientos.

Siempre con la intención inequívoca por parte de Miguel Trillo de incidir en su tema vertebral: tratar el territorio, la periferia y la realidad de las tribus urbanas y las tendencias juveniles frente a la centralidad

Javier Diez

Comisario de la exposición